

ZM

ZORROTZ MORROTZ

36. ZENBILIA 2015eko AZAROA

VERO ORDOÑEZ
KANTABRIAKO PARLAMENTUKO DIPUTATUA

BAI ARTE DANTZA TALDEA: 50 URTE

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritarik gabe?

ESKAINTZARik ONENA ZORROTZATik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



kafetegia **aLBOKA**

Cordelería, 5
Zorrotza - 48013 BILBAO
Tfno. 94 499 29 43



MESON OKONDO

Pintxo askotarikoak
7etatik, 23etara, zabalik

Zorrotza Kastrexana errep. 8 • Tel: 944 393 766

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak... FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Eraserik ez erantzunik gabe

Iragan urriaren 23an, auzoko emakume bat ospitaleratua izan zen, Hermogenes Rojo kalean eraso basati, bortxaketa ahalegin eta lapurketa baten biktima izan ondoren. Auzo Elkartetik, gure elkertasuna eta arin eta oso sendatzeko nahia adierazi nahi diogu emakumeari.

Nola ez, gertakari honen aurrean Zorrotza mobilizatu egin zen, eta manifestazio masibo baten bidez, kondena eta gaitzezpina adierazteko kaleratu zen. Auzoak urteak daramatza "Landa" bezala ezagutzen den eremu honen egoera salatzen. Maila guztietan puntu beltzetat hartzen baitu. Berriz ere, Udalari eskatzen diogu gune honek maila orokorrean beharrezkoak dituen jarduerak martxan jar ditzala. Ezin da, orain arte bezala, jarduera puntualetara mugatu. "Landa" jarduera plan integral baten behar-beharrean dago.

Bestalde, emakumeen kontrako indarkeria gizarte osoari dagokion gaitza da, eta bere ezabatze osoa lortu arte, ezinbestekoa da gogor aritzea.

Agur bero bat.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz



Zorrotzako kultur aldizkaria
36. zenbakia. 2015eko azarora

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:
Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Iratze Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:
Iñigo

Laguntzaileak:
Karlos Rodríguez
Bittor Rueda
Manu Cobo
Santurtziko Irakurzaile Kluba

Inprimaketa:
Arin Graf



zurea da fitza
euskara
no t'elo pierdas.




BAR VENECIA
Espesialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak
Abaro estarta 10
AUPA ATHLETIC

EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK



ibarreta luxury OPTICA **BLACKGUARD64**

2000 bat auzotar Landan izandako eraso matxista gaitzesteko elkarretaratzean



Ibai Barrios

Pasa den urriaren 23an jazoera lazgarri batekin hasi genuen eguna. Izan ere, goizeko 06:00ak inguru zirela 37 urteko gizon ezko bat auzoko emakume bat lapurtzen eta bortxatzen saiatu eta defenditzera zihoalarik, larriki jipoi zuen. Hermogenes Rojo eta Barinaga auzoa lotzen dituen tunelaren alboan gertatu zen ezbeharrak. Biktimaren oihuek berehala ohartarazi zituzten alboan zeuden ambulanzietako langileak eta laguntzera joan ziren, erasotzaileak alde egin zuelarik. Berehala eraman zuten Gurutzetako ospitalera 50 urteko emakumea, aurpegian zauri larriak zituela. Diagnostikoaren arabera, jaso zituen kolpeen ondorioz masailezurra berreraiki behar izan zioten.

Horren harira, urriaren 26an Zorrotzako Taldeon Koordinakundeak eta auzoko hainbat eragileek mobilizaziorako deia egin zuten, hitzordua arratsaldeko 19:30ean jarri zutelarik. Kioskoan entzun ziren lehenengo adierazpen hitzak abiapuntutzat hartuz, "Erasorik ez erantzunik gabe" lelopean 2000 pertsonatik gora abiatu ziren Ferialeetik Barinaga auzora eraso sexisten aurkako kontzentrazio erraldoi

honetan. Bertan, bizilagunen beharrianak zeintzuk diren ere aldarrikatu zuten, besteak beste auzoak dituen hainbat toki kritikotarako argiztapen eta segurtasun handiagoak eskatu zituzten.

Egun horretan bertan gertakariaren ustezko erruduna axililotu eta bi egun geroago epaileak gizon ezkoa espeteratzeko agindua onartu zuela informatu zuten hainbat iturri polizialek. Zorionez, hamar egun ospitalerata eman ondoren, alta hartu zuen zauritutako emakumeak, etxean sendatzen jarraitzeko.

Elkarretaratzearen asteko osteguneko udalbatzak Landako bizilagunen egoera eztabaidatu zuen, EH Bildu, Udalberri eta Goazen Bilbao taldeek batera aukeztutako mozio baten bidez. Udal gobernuko alderdiek, EAJ eta PSE, PPrekin batera, zuzenketa bat aurkeztu zioten moziolari, eta zuzenketa hori izan zen azkenean onartu zena, gobernuko taldeen eta PPren bozez baliotuta eta beste taldeen abstentzioarekin. Zuzenketa honen bitartez, Bilboko Udalak "berehalako neurriak" adostu zituen gune honetan segurtasuna handitzeko, eta presentzia poliziala indartzeko. Halaber,

berehalako garbitze lana planteatzen dute eta eremuko hirigintza, gizarte eta segurtasun datuak eguneratzea ere iragarri zuten “pre-miazkoenak diren egin beharreko ekintzak ahalik eta bizkorren ekiteko».

EH Bildu, Udaberri eta Goazen Bilbao taldeen hitzetan “gune horretarako irtenbidea ez da polizia gehiago, baizik eta berrurbanizazioa”. Landa puntu beltz bezala identifikatua zegoen orain dela bost urte egindako Hiri Debekatuaren Mapan. “Azken urteetan ez zaio irtenbiderik eman eta ezbeharrak gertatu denean, adabakiak jartzea erabaki du Udalak”.



Beste behin, Zorrotza beltzez jantzi da, emakume baten kontrako eraso sexista bat izan dugulako. Gure indar guztiak gizartearen kontzientziazioan jarri nahi ditugu. Aldarrikapen hau zentratu nahi dugu emakumeok libre bizitzeko dugin eskubidean, eraso sexistarik jasan gabe.

Arazo honen jatorria gizartean dago, ez baititu emakumeok eta gizonak berdin ikusten. Emakumeak bigarren mailako pertsonak izaten jarraitzen dugu eta horrela tratatzen gaituzte, gure sexualitatea edonorena izan daitekeela onartuz.

Hau guztia gutxi izango balitz, erasoak gertatu den tokia auzoko gune beltzetako bat da eta horrela salatu zuten auzoko hainbat eragilek orain dela urte batzuk, baina Udalak ez digu oraindik irtenbiderik eman. Egoera

hauek onartezinak dira, eta Udalarik irtenbide bat eskatzen diogu lehenbailehen.

Badira auzo honek jasan behar izan dituen hainbat eraso, eta aukera aprobetxatu nahi dugu, Zorrotzan ez direla jarrera horiek onartzen gogorarazteko. Beharrezkoa da gizarte osoak esfortzu bat egitea, ezinbestekoa delako gure auzoan eta gizartean erasoek ez dutela lekurik bermatzea. Inork ez dezala inongo motatako erasoak onartu, eta ikusi egiten baduzue salatu, berdin da eraso fisiko zein hitzekoa izan.

Denok daukagu etetik lasai ateratzeko eskubidea, ikaratuta, mehatxatuta, kritikak, edo erasotua izan gabe. Eta denek jakin dezaten, ezetz esaten dugunean ezetz dela.

Taldeon Koordinakundea

- BAIMEN GUZTIAK
- MATERIA ARRISKITSUEN GAINKO IKASTAROK
- GARRAIOLARIENTZAKO TREBAKUNTZA-IKASTAROK
- GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA)

Astillero, 2
Tfno. 94 499 25 91
Zorrotza - 4803 BILBO

**Pizzeria
Jatetxea**

La Viña de Oro

Zorrozoiti 1 · 944 994 247

**Jai-Alai
kafetegia**

Abaro-esteta, 12
94 490 12 59

Ibai-Arte dantza-taldeak bere 50. urteurrena ospatu zuen lagun mordoren artean



Igor Gutiérrez

Iragan urriaren 17an dozenaka dantzari, dantzari ohi eta lagun bildu ziren Ibai-Arte dantza-taldearen 50. urteurrenako jaietan. Gure auzoaren memorian nekez gordeko da egun eder eta hungigarriagorik.

Eguna hasteko, ehun bat dantzari, horietako asko dantzari ohiak, auzoko kaleetan barna dantztatu ziren, kalejira ikusgarri bat osatuz. Gaztetxeko plazara heltzean ekitaldi nagusia burutu zuten non taldeko hainbat partaide ohi omendu eta historiaren pasadizo batzuk gogoratu zituzten. Bereziki hungigarria izan zen Ibai-Arteren sortzaileen txanda.



Ondoren, 160 lagunek elkarrekin bazkaldu zuten eta bertan, iraganeko bizipenak elkartrukatu eta nork bere bizitzaren berri eman zuten. Bazkalondoa nonbait laburra suertatu zen, izan ere, erromeriaren lehenengo piezetan artean puri-purian zeuden hainbat solasaldi. Haitzama taldeko musikariek ia hiru orduko saioa eskaini zuten, dantzarako gogoak amaitzina baitzirudien. Eguna borobiltzeko, poteo musikatua abiatu zen auzoko tabernetan zehar, indarrak gorputza utzi arte.

XVI. mikologi erakusketa Thricholoma elkartearen eskutik

Zorrotz Morrotz

Azoka Parkean ospatu zen Thricholoma elkarteak antolatutako XVI. mikologi erakusketa. Azaroaren 8an izan zen, eta jende asko hurbildu zen goizean zehar. Eguraldia lagun izan zuten antolatzaileek erakusketarako, baina ez aurreko egunetan bilketarako, eta adierazi zuten “horrek beste urteetan baino mota gutxiago izatea” suposatu du. Hala ere, 150 perretxiko inguru egon ziren ikusgai.





Archer marinelaren kalea

Artseralera bidean hasten da eta orain portuko sarreran amaitzen da, lehenago Txurruka kaian amaitzen zan puntarartino joateko. 1689. urtean jaioa, Archer marinela Bizkaiko jaurerriko fragata kapitaina, eta hidrografoa izan zan. Matematika eta nautikako irakaslea ere, 1756an argitaratu zan “*Lecciones náuticas explicadas en el museo matemático del M. N. y M. L.*” liburua idatzi zeban.

Bere garaian industria handi eta asko egon ziren kale hontan, baita militarren koartela (presoek barkuetan eta hantxe sartu ebien guda garaian eta ondoren). Kale hontan Talleres de Zorroza, Molinos vascos, Setra-seida, industrias químicas canarias eta campsa egon ziren, baita Dalmiro Mentxakaren taberna, bezeroak ziren langileak, soldaduek eta futbol zale asko (alboan Zorrotza futbol taldea jolasten zeban). Azken urteetan hiltregia eta autobus gordelekue zein gasolindegi bat egon dira.



”la Caixa”

Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es

“ Hemen 30 urtetik beherakoek leitzarra naizela uste dute ”



PABLO FEO

Bizitokia: Leizta (Nafarroa)

Noiztik: 1996tik

Adina: 47 urte

Lanbidea: Tailer okupazionalako arduraduna

Oposaketa bat egin ondoren, Nafarroara joan zen Zorrotzatik Pablo orain dela 20 urte inguru. Euskal Txokoaren eta gure aldizkariaren sortzaileetako bat izateaz gain, Leitzako baserrien mapa berezi bat asmatzeagatik telebista eta zenbait egunkariren arreta lortu zuen orain dela gutxi. Hiru seme-alabaren aita, Zorrotzan egoten zen bezala, mila saltsatan murgilduta jarraitzen du.

Bittor Rueda

Noiz eta zergatik joan zinen Leitzara?

1996. urtean nik 26 urte nituela oposaketa batera aurkeztu ondoren.

Oso ezberdina al da hango bizimodua edo auzoko bizitzaren antzekoa da?

Egia esan, lekua baino zure izaera da bizimodua baldintzatzen duena. Auzo bizimodua herri txikiko bizimodua dela esan daiteke, dena gertu, dena ezagun muga batzuen artean.

Herri euskaldun baten integratzea zelan bizi izan duzu?

Herri euskalduna izateagatik, ez da aparteko arazorik, kontrakoa esango nuke. Badira Leiztan euskaraz ez dakiten batzuk eta ez dira batere gaizki moldatzen, badakizua euskalduna beti elebidun! Hala ere, euskaraz errazago eta azkarrago sar zaitezke saltsa gutzietan. Baina

benetako erronka zera da, hiri haundi batetik atera eta herri txiki batean kokatzea. Hori bai dela saltoa! Dena den, oso interesgarria izan daiteke hemengo bizimodua. Deskonektatzeko eskapareak ikusi beharrean beti duzu mendian galtzeko aukera. Gainera gaur egun, ordu erdian Donostian edo Iruñean egon zaitezke kotxea izanez gero.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuna Zorrotzarekin alderatuta?

Bizimodu lasaiagoa dela, zarata gutxiago eta orain, 3 seme-alabekin, garai batean Zorrotzan ibiltzen ginen bezala ibiltzeko aukera. Umeak askatasun handiagoz bizi dira herri txikietan hirian baino.

Zorrotzara maiz etortzen zara?

Nire familia Zorrotzatik alde eginda oso gutxitan bueltatu naiz. Hala ere, aukera dudan ba-

koitzean buelta bat egiten dut. Ikaragarri aldatu da, kanpotik eta lantzean behin ikusita.

Zelan gogoratzen duzu Zorrotz Morrotz aldikariaren sorrera?

Oso garai polita, gogoz eta ausardiaz betetik. PC txar bat, argazki kamara karrete eta guzti eta ilusio handia. Aldizkaria hasieran oso sinplea zen, orri gutxi eta asmo handiak. Nik maketazio lanak egiten nituen. Bilbo osoan ez zen holakorik garai hartan. Hori marka! Zorrotza bezalako auzo batean izan behar. Erderaz egiten ez zena ere, euskaraz egitea lortu zen!! Gero Leitzara etorrita zenbait ale ere maketatu nituen, Aitor salbatzailea azaldu zen arte. Orain ikusten dut gainera erabat hobetua eta nolabaiteko maiztasun serioarekin ateratzen dutela. Gainera euskarri digitalean irakurtzeko moduan, publizitate atala ere ongi landua. Txapo!

Eta Izenbarik Mintzataldea, Euskal Txokoa...?

Badakizu, euskaltegiaren inguruan ibiltzen ginenok euskara mugitzeko beharra genuen. Horrela hasi zen mintzataldea, hasieran gogoa bai baina antolatzeko ahalmen gutxi zegoen. Gogoratzen dut zenbait bileratan pertsona bat baino ez zela azaldu. hura miseria! Zorionez eutsi genion lagun talde polita osatu arte, txikia baina eraginkorra. Sortu genuen taldearen helburua ez zen batere makala, inoiz auzoan egin ez zena egitea: ikastaroak, bideo emanaldiak, ibilaldiak, hitzaldiak, proiektzio-hitzaldiak... eta gainera euskaraz. Garai hartan ez ziren auzoan gaur diren euskaldunak. Orduntxe hasiak ziren eskoletan euskaraz irakasteko ereduak, beraz ez zen lan erraza izan.

Zerbait sumatu izan dozu faltan?

Argi dago hasiera batean jokoak kanpo aurkitzen zarela. Lagunak, familia eta ohikoak dituzun entreenimenduak bat batean desagertzen direla. Beraz hasieran dena faltan somatzen da. Gero denborarekin Bilboko loturak pixkanaka laxatzen joaten dira eta hemengoak sortzen eta sendotzen dira. Hemen arrotza sentituzetik kontrako egoerara pasatzen zara konturatu gabe. Orain Zorrotzara joan eta 35 urtetik beherakoak ez ditut ezagutzen, ezta haiek ni ere. Leitzan berriz, 30 urtetik beherakoek leitzarra naizela uste dute. Hau panorama... Zorrotzan oso interesgarria den jendea ere bada eta auzo arima moduko bat ere badu. Oroitzapen onak ditut oso.

Nolakoa da zure bizimodua Leitzan?

Zuk oso ongi dakizun bezala eta Ruben Bladesez esaten duen bezala, mailu izateko jaiotza bazara, iltzeak zerutik eroriko zaizkizu. Bada, holaxe nabili ni hemen Zorrotzan bezalatsu, mila saltsatan. Eta familia, nola ez! Neska bat eta bi mutil, futbola, pilota, pianoa, atsaldakoak, joanetorriak, ikasketak, partiduak, etsaminak....

Zein litzake zure ustez leitzarren adierazgarri nabarmenena?

Leitzarrak eta Bilbokoak fama bereko harroputzak dira... Leitzara eta Bilbo botxo banatan daude, inguruko leku inportanteenak dira eta bertako biztanleak oso harro sentitzen dira hangoak izateagatik. Niri zera esaten didate hemen: Bilbokoa izanda, hobetzeko modu bakarra Leitzara etortzea dela, masterra egiteko nonbait. Horrela daude kontuak...



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



Taberna
AITOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



BAR BASARRI

Errazioak, konbinatuak,
pintxo askotarikoak,
eta pintxopote ostegunero

ZORROTZA KASTREXANA, 10

IBAI-ARTE DANTZA TALDEA

Berrogeita hamar urte dantzan



Zorrotzan edonork badu Ibai-Arten ibilitako senide edo lagun en bat. Izan ere, belaunaldi ugari pasa dira auzoko euskal dantza taldetik, orain dela berrogeita hamar urte sortu zenetik. Garai bakoitzeko zailtasunak gorabehera, elkarteak bizirik dirau eta egun 60 dantzari baino gehiago biltzen ditu.

Testua: Igor Gutiérrez
Argazkiak: Ibai-Arte

Auzoko talderik zaharrenetarikoa dugu Ibai-Arte. Gure inguruko beste hainbat dantza-talde bezala, frankismoaren erdian sortu zen, euskal folklorea gorde eta bultzatzeko asmoz. Hori dela-eta hamaika zailtasun izan zituzten aurrera egiteko, 1965. urtean euskal kutsua zuen edozer susmagarria baitzen or-

duko errejim en faxistarentzat. Arazoak arazo, auzotar askoren babesba izan zuten, eta apurka-apurka euren ibilbidea eraikitzen joan ziren. Frankismoaren ondoko trantsizioarekin euskal kulturaren loraldia etorri zen eta horrekin batera, dantza-talde en urrezko urteak. Ibai-Arten itxarote-zerrendak eta sarrera-probak ere egiten zituzten, hain handia zen parte hartzeko grinal!



Egungo egoera

Egungo egoera oso bestelakoa izanda ere, ezin uka daiteke Zorrotzan euskal folklorea bizi-bizi dagoenik. Sei azpitalde ditu Ibai-Artek, adin desberdinetakoak: dantzarako has-tapena (4 urte), txikien taldea, haurren taldea, neska gazteen taldea, mutil gazteena eta gurasoen taldea.

Orotara, 60 dantzari baino gehiago ibiltzen dira eta urtean zehar presente daude auzoko bizitzan: Olentzero, Inauteriak, Korrika, Zorrotzako jaiak... Horrez gain, hainbat herri-tako dantzaldietan parte hartzen dute (Bilbo, Barakaldo, Santurtzi...) eta, noski, Bizkaiko Dantzari Egunean. Astero biltzen dira entseatzeko, bai Auzo Etxean bai frontoiko lokaletan.

Etorkizuneko erronkak

Baina oraindik gainditu beharreko erronka handiak dauzkate. Musikariak, txistulariak batez ere, behar dituzte, eta horregatik proiektu berri batean murgildu dira Txinbotarrak konpartsarekin batera, auzoan tresna tradizionalerako musikari harrobia sortzearena, hain zuzen.

Bestetik, eskas dabilta mutilen aldetik, batik bat 12 urtetik aurrerakoak, eta horrenbestez zailtasunak dituzte taldekako dantzak jorrazteko. Edozelan ere, gogotsu heldu diote aitzindariak utzitako lekukoari eta buru-belarri ari dira gure auzoko dantzarien belaunaldi berriek hura hartuko dutelako itxaropenaz.



Dantzari

Camino Zorroregati 1,

94 612 93 85



drinks



table



music



menu

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetales.com

cafe**txinbo**

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estarta. 10
Tel. 94 608 85 74

VERO ORDOÑEZ

Podemos alderdiko diputatua Kantabriako parlamentuan

“Lehenengo bilkurako lotsa eta beldurra gainditzea ez zen batere erraza izan”



Alokairu merkeago baten bila, bere senarrarekin batera Castro Urdialesera “emigratu” behar izan zuen Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatu zorrotzarra da Vero Ordoñez. “Podemos” alderdiaren sorrerak politikan berriro murgiltzeko ilusioa piztu zion eta alderdiko “zirkuluetan” parte hartzen hasi zen. Ekainetik, alderdiaren bozeramailea da Kantabriako parlamentuan.

Testua eta argazkiak: Aitor Marín



Noiz eta zergatik erabaki zenuen politikan sartzea?

Podemos alderdiaren sorrerak oso ilusionatu ninduen. Castro Urdialesen aurkeztu zen "zirkuluan" parte hartzen hasi nintzen. Egun bat, beste bat, eta beste bat... gaur arte.

Podemos alderdian sartu aurretik, beste militantzia politikorik izan zenuen?

Bai, oso gazte nintzenean, Ezker Batuan egon nintzen, baina oso azkar alde egin nuen hortik. Madrazo alderdiaren buruan zegoen eta ez dut berarekin eta bere jendearekin ezer izan nahi. Hainbat kiderekin oso harreman ona nuen, baina hor geunden jende askok egin genuen alde aldi berean eta arrazoi beragatik.

Kantabriako parlamenturako hautagai izateko aukera helitzen zaizu, non eta zerrendako bigarren postuan. Nola izan zen une hura?

Oso azkar gertatu zen dena. Ez zen nik hausnartutako erabakia izan. Atseginez hartu nuen, baina hainbat kideren bultzadaren errua izan zela esan daiteke.

Kantabrian diputatua izan aurretik, zer egi-ten zenuen? Zein zen zure ogibidea?

Familiaren Venecia tabernan laguntzen ordu asko ematen nituen. Osakidetzan ere egon

“ Hautagai ateratzea atseginez hartu nuen, baina ez zen nik hausnartutako erabakia izan. Hainbat kideren bultzadaren errua izan zela esan daiteke ”

nintzen zaindari lanetan, baina oso denbora gutxian, eta gainera aldi bateko langilea izanda. “Prekariatatean”, kar, kar.

Suposatzen dut “prekariatetik” parlamentura emandako jauzi horrek, zure egunerokotasunean aldaketak ekarri dituela. Nola bizi izan dituzu aldaketa horiek?

Bizitza osoa aldatu egin zait. Ederra izan da, baina aldi berean, oso gogorra ere. Lehenengo egunetan txarto samar hartu nuen. Hama sei ordu inguru ematen ditut lanean, ez dut gogoan libre izandako azken asteburua... Oso lan ezberdina da, lan ederra, baina oso gogorra batzuetan. Konpromisoa izanda, lana ez da inoiz amaitzen eta estresak jota bizi daiteke. Ezin ukatu orain errazagoa dela bizitza. Lehen dirurik gabe bizi behar duenaren estresa nuen gainean. Orain, aldiz, lan honek ekartzan didan estresa jasatera pasatu naiz. Baina pasioz bizi dut.



“ Kaletik ezaguna izateak lotsa ematen dit, baina aldi berean, jende askok nigan itxaropena duela ikusteak, jarraitzeko indarra ematen dit ”

Tabernari edo ospitalean zaindari izatetik, zeure burua parlamentuko tribunan hizlari ikustera pasatu zara bat-batean. Zer sentitu zenuen parlamentuan hitza hartu behar izan zenuen lehenengo aldian?

Pelikula batean egongo banintz bezala bizi izan dut. Orain jada zer egiten dudan konturatzen hasi naiz. Lehenengo hilabeteetan ametsetan bezala izan zen, baina gero era naturalean ateratzen da, bizitza osoa horrelakoetan eman izan banu bezala. Hori bai, lehenengo bilkurako beldur izugarria eta lotsa apurra gainditu behar izan nituen, eta ez zen erraza izan.

Jendeak kaletik ezagutzen zaitu?

Bai, eta lotsa handia ematen dit. Adibidez, batzuetan supermerkatuan esaten dudana goratzeko, proposamenak edota haien kezak botatzeko gelditu izan naute... Jendeak nigan itxaropena duela ikusteak jarraitzeko indarra ematen dit, baina ez dut bizi pribaturik; batzuetan gauza batzuez ezin da edonorekin hitz egin... Ez nago ohituta eta horrek ere presioa eragiten dit.

Nolakoa da beste diputatuekiko harremana?

Kantabriako parlamentua oso txikia denez, harreman oso familiarra da. Oro har diputatu guztiok harreman “kordiala” dugu. Bilkura hasten denean, ezberdina da. Han dena teatralizatzen da eta bakoitzak bere eginkizuna jokatzeko du.

Zein da zure ardurata talde parlamentarioan?

Hiru kide gara. Ingurugiroa, politika soziala eta heziketaz arduratzen naiz. Bozeramaile lanak hiruren artean banatzen baditugu ere, erreferentziatzeko bozeramailea ere banaiz.

35 diputatuetatik, solik hiru zarete zure taldean. Egiten diren politiketan eragina izan dezakezue?

Bai. Gobernuak ez dauka gehiengo osorik, eta egoera horrek balantza alde batera edo bestera mugitzeko aukera ematen digu askotan. Parlamentuaren osaketak emaitzek emandakoa baino ordezkaritza handiagoa izaten laguntzen digu.

Orain arte parlamentuan bizitakoaz, zer da gehien harritu zaituena?

Behin, Madrilgo gobernuak bultzatutako mozal-Hegeari buruzko eztabaida batean, buruan tirokatzen zutenak babestea zela gu mozal legearen aurka egotearen arrazoia esan zigan PPKo diputatu batek. Horrelako gauzak Kantabriako parlamentuan entzun behar, arraroa egiten zitzaidan, baina azpikoak politikan, edonon.

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera politikoa?

Izugarrizko aukera dugu gauzak aldatzeko. Al-daketarako ilusioa eta aukera nabari da edonon. Trantsiziotik hona erregimena aldatzeko

izandako aukerarik onena dela uste dut. Ahalik eta gehien zailtzen saiatuko diren arren, lortuko dugulakoan nago.

“Podemos” geratzeko heldu da politikara?

Beharrezkoak izan artean, bai.

Eta Vero Ordoñez?

Ufa. Ez dakit. Alde batetik, alderdian bi legegintzalditara mugatuta dugu hautetsi izatea. Bestetik, lehen esan bezala, batzuetan gogorra da hau. Batzuek bizi osoa ematen dute politikari lanetan; guk aldiz, bizi osoa jartzen dugu proiektuan: denbora, familia, harremanak... Lau urte hauen konpromisoa hartu nuen, eta legegintzaldia bukatuta, ikusiko dugu. Pentsatu beharko nuke.

Urte hasieran Podemos lehenengo agertzen zen inkesta askotan Estatu mailan. Azkenengo hilabeteotan plazaratutako inkestentzen arabera laugarren indarra izatera jaitsi da. Zein da arrazoia zure ustez?

Inkesta ordaintzen duenaren nahia islatzen ohi dute inkesta gehienek... Egia da urte hasieran bezain indartsu ez gaudela, baina normala dela uste dut. Barne prozesu gehiegi izan ditugu eta prozesu horiek ilusioa eta alderdi bera ere pixka bat apurtzera eramanez. Bestalde, alderdi zaharrek gure diskurtsoa barneratu dute zentzu askotan, (gehiegi sakondu barik) eta horrek ere guk gora egitea zailtzen du. Haien politika soziala aldatu dute, partehartzea bultzatu da, ustelkeriaren aurkako neurriak hartzen hasi dira... Horretan guztian eragina izan dugu, eta oraindik nahikoa ez denez, horretan irau behar dugu.

LABURREAN

“Aisialdi gehiena irakurtzen ematen dut”

Pertsonaia politikoa edo historikoa bat aukeratu behar duzu: Euskal Herrian?...

Arnaldo Otegi oso pertsonaia garrantzitsua izan da eta bada oraindik.

...Estatu mailan? Julio Anguita.

...eta nazioartekoan? Ufa! Oso galdera zaila. Pepe Mujica agian.

Zaletasun bat?

Irakurtzea.

Gomendatuko zenukeen liburua?

José Saramagoren “Ensayo sobre la ceguera”.

Telebistako tertulia politikoa edo saio arrosotako debateak?

Ez bata ez bestea. Aisialdi gehiena irakurtzen ematen dut.

Teleberria ala egunkaria?

Egunkariak, pluralean.

Egunkariaren azalean irakurtzea gustatuko litzazukeen albisteak?

Pobrezia erauzi dela, ustelak kaltetzen direla, matxismoarekin bukatzea lortu dugula, TTIP ez dela sinatuko...

Deskonektatzeko lekuri hoberena?

Frantzia. Landak.



ESKERRIK ASKO

EUSKARAREN TAUPADA IZATEAGATIK

ABENDUAK 3

2015EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKALDUN BERRIARI AITORPENA
www.EuskaldunBerriaKalea.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Erreboiloa labean



Osagaiak: Erreboilo bat ezkata, alboko hezur eta errairik gabe, baso erdi bat ardo zuri, oliaba olioa, 4 ale baratxuri, sagardo-ozpina, perrexil pikatua, gatza.

Gatza eman eta labeko erretilu batean paratuko dugu erreboiloa. Ardo zuria eta oliaba olio pixka bat isuri. Aldez aurretik 180°tan berotutako labean sartuko dugu erreboiloa, 25 bat minutuan. Arrainaren zukuaz garaztatuko dugu aldiro-aldiro, aise askatzeko moduan dela ikusi arte. Bukaera aldean, erreboiloa ia egin denean, zartagin batean olioa su bizitan berotu eta baratxuri xerrak gorritu. Txigortu direnean, sagardo-ozpina eta arrain errearen zukuaren parte bat gaineratu eta irakiten izan guztia segundu batzuetan. Perrexila erantsi eta baratxuri-olio hori isuri erretiluan izango dugun erreboiloaren gainean. Berehala zerbitzatu. On egin!

Zaitasun maila | Ertaina - Handia

Kartaren batez besteko prezioa: 45 euro

MESÓN LUNA

1987an irekia, egunero zabaltzen ditu ateak goizeko 7:00etatik gauko 23:30era. Talde profesional ederrak osatua, beti zerbitzurik onena eskaintzeko prest, eta plater ederrenak eta askotariko pintxoak, gehienetan Euskal Herriko ohikoak. Bezeroen eskura dugu gastronomia zabala, itsasoko produktuetan oinarrituta. Aldi berean, parrillan haragi goxoak prestatzen dituzte. Karta zabala dute, non kalitate handiko produktuak aurki daitezkeen, etxeko postre bereziekin lagunduta. Jatetxe honetan eremu erosoak eta giro atsegina topatzeko aukera izango duzue. Halaber, arreta adeitsuak, atseginez joan zaitezela eragingo du plater ederrak dastatu ondoren.

Eguneko menua astelehenetik ostiralera.

Hermógenes Rojo, 2

Tel. 94 499 01 30




*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



2000. urtetik Via Grafican inprenta digital zerbitzu zabala eskaintzen dugu. Arte grafikoetako mundua irauli duen sistema da hau eta arrazoa oso simplea da: fotomekanikarik gabe, ordenagailutik paperera zuzenean inprimatzeko aukera ematen du. Sistema honek eskaintzen duen abantaila nagusietakoa: inprimatze kopuru txikiak oso arin, merke eta kalitate onean atera daitezkeela.

Via Grafican ez dugu soilik inprentak lanak egiten. Zure enpresarako proposatzen diguzun ideia diseinatzen dugu: logotipoak, liburuxkak, argazkien berrukipena... Zure esku jartzen dugu inprimatzeko sistema berriena kopistegi lanetarako, koloreetan edota zuribeltzez, koadernatzea, plastifikatzea...

Via grafica.
Vicente Zabala, 18
Tlfnoa. 94 427 62 40



Sirena hotsak

Xabier Etxaniz Rojo. Erein. 2013



Lau ipuinez osatutako liburua da hau. Lauren arteko zerikusirik egon ez arren, ezaugarri bat dute komunean: iraganaren indarra, zeinek denboran zehar saltoka eramaten duen irakurlea. Bere idazteko estiloan eskema kronologikoa zirriborratzen du, baina gero kasurik ez egiteko, aitortu zigunez. Arauk apurtzeko daude beti. Ez hain espli-

zituki, baina oso agerikoa da kontakizun hauetan guztietan literaturarekiko eta liburuekiko lotura.

“Matxupitxu” ipuina sorpresaz beterik dago eta amaiera ezin harrigarriagoa da. Bigarreanean, “Akelarreak” ipuinean, Sara protagonistak buruan duen zalantzak gidatzen du ildoa: “sekretu bat kontatu ala ez”, irakurleari zer egingo lukeen pentsaraziz. “American way of life” kontakizunean, izenburuari kasu eginez, istorio txoak Road-movie-a dirudi, espazioan bai, baina bereziki denboran zehar. Eta azkena, liburuari izena ematen dion ipuina, “Sirena-hotsak”, egitura sendoena duena da, oso ondo kalkulaturia, hiru protagonistei adinako berdina emanez, eta tentsoiari hasieratik amaieraraino eustea lortuz.



E

Enkore.(Baga Biga. 2015)



2009. urtean Errekaldeberrin sortutako taldea dugu Enkore. Hasiera batean hirukote ziren arren, gero bigarren kitarajole bat gehitu zitzaizen proiektura. Duela urte batzuk bateria aldaketa bat izan ostean, formazio egonkorra izatea lortu dute. Dagoeneko bi maketa,

single bat eta bi diska argitaratu dituzte, hemen aurkezten dugun “E” izeneko hiru garrena delarik. Aurrekoan bezalaxe, Baga-biga zigilu bizkaitarrarekin atera dute lan berri hau. Taldearen kontratazioaz ere arduratuko dira bereiek hemendik aurrera.

Hirugarren lan honetan 10 abesti aurkituko ditugu, non pop-rock melodiak elektronikarekin eta erritmo dantzagarriekin ederki nahasten diren. Atzerriko taldeen influentzia ere nabari da hainbat abestitan. Ohi bezala, hitzen testuingurua amodioa eta pasioaren arteko puntu horretan koka daiteke, non gauak eta horren nondik-norakoek garrantzi handia duten. Dena den, azken emaitzari begiratuta nabari da taldeak heldutasun puntu bat lortu duela, batez ere soinu eta abestien gorpuzkeran.



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarri. Eskerrik asko!

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Aurrekoan ikusi dugu nola «gizon» hitzak esanahi positiboa duen eguneroko mintzaeran eta «gizon portatu» ezaguerak, primeran/ behar bezala/ ederto/ ezin hobeto portatu adierazi nahi duela. Kontraz, askotan «neska» edo «emakume» hitzak irain bezala erabiltzen dira eta normalean, mutiko edo gizezkoiei zuzendutakoak.

Erabilpen hau emakumeen eta nesken gaineko estereotipoekin erlazioaturik daude: ahulak, berritsuak, kakatiak... Hurrengo adibidetan ikus daitekeen bezala: "Aizu, neska baten moduan jokatzan ari zara!"

"Ez daukazue potrorrik, ala? Zer zarete zuek, neska batzuk?"

"Beti txutxumutxuka, emakumeak bezala!"

Argi dago hitzaren erabilerak emakumeen gutxiespena eta emakumeen gaineko estereotipo negatiboak indartzen dituela. Tamalez, euskara ez da salbuespen negatibo bat kasu honetan; hizkuntzak, gizarte patriarkalaren oinarria ezagutu eta mantentzeko tresnak ere baitira.

Bukatzeko, interneten topa daitekeen "Hacer las cosas como una niña" ingelesez eta gazteleraz dagoen bideoa ikusteko gomendatzen dizuegu, aurrez esandako guztia grafikoki ulertzeko erarik politena baita.

SALAKETA ARGAZKIA



Iragan urriaren hasieran izandako euritearen ondorioz, eraiki berri den Zazpi Landa-ko igogailua hondatu egin zen. Igogailua ekainaren 26an martxan jarri zen eta hiru hilabeteren ostean, badirudi motorrak ez duela lehenengo eurite gogorra jasan. Konponketa lanen ondorioz hilabete bat geldirik eman du. Nola liteke Bilboko Udalak ez jakitea hiriko azpiegituretan uraren kontrako babesa behar beharrezkoa dela lekuko klimatologia ezagututa?

Halaber, eurite berak Zorrotzako Udaltegia ere hartu zuen. Horrek, (argazkian ikus daitekeen bezala), aurretik ere negargarria zen auzoko taldeek erabiltzen duten lokalen egoera kaltetu zuen. Ezin ahaztu kiroldegian dauden instalazio hauek, behin behinekoak direla, eta elkarteentzako lokalak leku handiago batean ezartzea zela asmoa. Bada garaia, 12 mila biztanle eta elkarte ugari dituen gure auzo honek, elkarteentzako lokal duinak eta behin betikoak izan ditzala.

Emakumerik ez Zorrotzako kale eta plazetan

Emakumeak eta gizonak, kopuruz, parekatuta gaude gizartean. Logikak dio kale izendegiak ere gauza bera irudikatu beharko lukeela, baina ez da horrela. Azter dezagun gure auzoko kale izendegian zein den emakumeek duten lekua.

Zorrotzan 30 kale daude eta izen gehienak toponimoak dira edota erreferentzia egiten diote leku geografiko bati. Adibide batzuk ematearren Zazpilanda, Aldapeta, Abaro, Montevideo, Zorrozgoiti, Pinadia, Kadagua, Transito, Zorrotzako geltokia, Zalbidea, Zorrotza-Kastrexana, Bidegain, Ikastalde, Mendigain, Puntabidea, Zorrotzaganana, Zorrotzabaso, Butroe eta Zorrotzako Lorategia ditugu. Era berean, auzoko historia edo iragan industrialera adierazten dute beste kale izen batzuek. Horren adibideak Untziola, Soka eta Arsenal kaleak dira; baita Azoka plaza ere, edota Adiskidetasuna eta Jabonera Tapia Langileen etxaldeak.


Kristau santutegitik ateratako izen bat ere bada, Mikel Deuna. Gainera, inork baino garrantzi gehiago omen du, Zorrotzako plaza eta auzune bati izena ematen dielako. Azkenik, zenbait pertsona omentzeko izendatu dituzten kaleak ditugu. Zorrotzan zazpi baino



ez dira, baina den-denek gizonezkoen izenak dituzte: Ignacio Miranda, Benito Barriñaga, Hermógenes Rojo, Miguel Archer, José María Usandizaga, Fray Juan de Zorrotza eta Vicente Zabala.

Nabarmen ageri da zein den emakumeen izenen presentzia Zorrotzako kale eta plazetan. Jakin badakigu egoera hori antzekoa dela gure inguruko edozein herri eta auzotan, baina ez naiz sartuko hemen aztertzeraz zeintzuk diren fenomeno horren arrazoiak. Hala ere, iruditzen zait ezinbesteko garrantzia duela emakumeen izenak berreskuratzeak, horrek eragin positiboa duelako memoria sozialean eta belaunaldi berrien heziketan. Beraz, hausnarketa txiki bat proposatzen dizuet: aurki dezagun auzotar guztion artean emakume izen bat Zorrotzako kale edo gunee bati izena emateko. Kale edo plaza berririk izan ezean, nik proposatuko nuke Zorrotzaganako jolas parkeari eta duela urte gutxi Zazpilandan inauguratu zen parke publikoari emakumeen izenak ematea.

Karlos Rodríguez



*sorrendua
piztu!!*

amc
diseinua

Diseinu grafikoa
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak, Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934** • aitor@amcdiseinua.net

Burujabe izan nahi dugulako, gazteok bagoaz!!

Etokizun iluna iragartzen digute. Gazteok prekariedade iraunkorrera kondenatuta gaude. Zapalduak eta esplotatuak izatera. Hau da sistema kapitalista eta heteropatriarkalak mahai gainean jartzen digun aukera bakarra. Hau da kapitalaren Europak, Espainiak eta Frantziak eskaintzen digutena.

Espainiar estatua egiturazko krisian murgilduta dago. Frankismoaren ostein sortutako Erregimenaren aparatu guztiak goitik behera zikinduta daude. Sistema higatzen ari da, erortzeaz dago.

Krisi soziala areagotzen ari da eta gazteen artean geroz eta nabariagoa da prekarietate egoera. Gehiengo enplegurik gabe gaude eta langile garenon bizi baldintzak zeharo ezegonkor eta kaskarrak dira. Prekarietatean murgildurik, gurasoen etxeetan usteltzera kondenatzen gaituzte.

Ez dugu denborarik galtzeko. Haien garaia amaitu da, eta gurea hasi. Inori itxoin gabe, Euskal Herri aske eta burujabe batera eramango gaituen bidea eraikitzeko hautua egin dugu.

Herritarron behar eta borondatean oinarritzen den prozesuaren aldeko apustu egin dugu. Gure bizitza eta gorputzen gainean erabaki nahi dugu, guztia erabaki nahi dugu. Indepen-

dentziaren ateak parez pare irekirik, sistema politiko, ekonomiko, eta oro har, bizitza erdiguneko kokatzen duen proiektua eraikiko dugu.

Sistema kapitalista heteropatriarkalak gazteontzat ez dauka ezegonkortasuna eta pobrezia ez den bestelako eskaintzarik. Sistemaren engranaje bat gehiago izateko hezten gaituzte, morroi izateko. Gu honi aurre egitera goaz, hortzak erakutsiz. Mundua aldatu nahi dugu, guk erabaki nahi dugulako, aske izan nahi dugulako. Bagoaz, lapurtu diguten oraina berreskuratu eta etorkizun duin bat nahi dugulako.

Kalea hartzeko unea da! Autogestioaren bitartek, urratsez urrats, oraina eraldatzera goaz. Gazteok gazteontzat eraikiz, zapalkuntzarik gabeko espazio askeak sortuz, egunegun burujabeago izanez.

Bagoaz burujabe izan nahi dugulako, geure erabakien jabe, gure gorputzen jabe. Bagoaz eta ez diezagutela itxoin afaltzeko, gure garaia iritsi baita. Bagoaz prekarietatetik, ukaziotik eta zapalkuntzatik. Antolatuz eta borrokatuz Euskal Herri aske, sozialista eta feminista eraikitzen goaz.

Gazteok bagoaz eta ez itxoin afaltzeko!!



Askabide
Zorrotza

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

independentzia!
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA

ITZULERA GOGOAN,
TAUPADEN ARRAZOA

Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

Aisialdian ere, euskaraz!

Ekintza ugari prestatu ditu Gure Lurra elkarteak hurrengo bi hilabete hauetan, Euskararen Eguna bitartean, gure hizkuntza eskolaz kanpoko beste arloetarako baliagarria eta onuragarria dela agerrarazteko

Gure Lurra aisialdi zentroan euskara hizkuntza eskolako giroan soilik erabiltzearen ohituratik urrundu eta gure egunerokotasunean, baita ekintza guztietan ere, euskara eta euskal kultura barneratzeko lan egiten ari gara. Eskola eta hezkuntza formalarekin lotzen diren euskaraz erlazionatzeko modu horiek, beste arloetarako baliagarriak eta onuragarriak direla agerraraziz.

Hurrengo bi hilabete hauetan, abenduaren ospatzen den Euskararen Eguna bitartean, ekintza mordoa prestatu ditugu ildo honetan. Alde batetik, euskara eta euskal kulturarekin bat egiten duten antzerki eta ikuskinzuetan parte hartuko dugu; eta bestalde, abenduaren 3an izango den Euskararen Eguna ospatzeko, aste horretan ekintza berezi piloa dugu prest.

Gure auzoan gurea den hizkuntzan bizitzeko eta arlo guztietan erabiltzeko aukeraren alde, mantso baina gogotsu eta indartsu lan egiten ari garelako, Zorrotzan eta Aisialdian ere Euskaraz!



Restaurante
Arsenio
Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



Pilar

Entzunda neukan
zer edo zer...
Denetariko nazioarteko
egunak badaude,
zergatik euskararena ez?



Lucía

Bai, badakit existitzen
dela, nahiz eta
ez dakit noiz den.
Euskaldunontzat ondo
dagoela uste dut.
Garrantzi gehiago
emateko edo.

Euskararen Eguna:

Bazenekien
existitzen dela?
Zer deritzozu?

Igor Gutiérrez



Ibai

Abendua aldean da,
eguna ez dakit zehazki
zein den, baina existitzen
dela eta honen harira
auzoan ekintza batzuk
antolatu ere
egiten direla banekien.
Euskara bultzatzea oso
garrantzitsua dela uste dut.



Txamel

Ez dut gogoratzen noiz
den, baina badakit
existitzen dela.
Ondo dago ospatzea,
baina euskara egunero
bultzatu behar da.



Jone

Ez dakit noiz, baina bai.
Ez naiz euskalduna,
baina euskara bultzatzea
ondo dago, eta jendea
kontzientziatzeko
ekimen ona da

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalvidea estrea, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

BAR MOY
ATHLETIC CLUB

Berezitasunak: Txanpiak,
Hanburgesa eta sandwich
erraldoiak

ZORROTZA KASTREXANA, 21
© 944 360 702

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

ABENDUAK 3
euskararen
nazioarteko
eguna
2015

bertso afaria

AZAROAK 27, OSTIRALA
Arsenio jatetxea

20:00etan trikipoteoa Arsenio jatetxetik

Menua:

Perretxikoak urdaiazpikoarekin, zainuri berdea
txakolinetan, eta etxeko entsalada

2. platera (izena ematean aukeratzeko):
Haragi zipildua edo legatza

Azkenburukoa, ogia, urteko ardoa eta kafea

15€

Izena emateko eta info +: **aek euskaltegia**

944 414 920 / 663 080 976

(Azaroaren 20a baino lehen)

Fredi Paja

ONINTZA ENBEITA

AZAROAK 28, LARUNBATA

Gaztetxean:

- 11:00etan Aurpegi margoketa eta txapak egiteko tailerra.
- 12:00etan "Pirata Garrapata" antzerkia, Gure Lurraren eskutik
- 13:00etan Dantza Tailerra, Ibai -Arteren eskutik
- 16:00etan Eskalada tailerra, Gaztetxearen eskutik
- 17:00etan Talo tailerra, Gure Lurraren eskutik

Astean zehar, Institutuan:

Durangoko azokara bisitaldia / Euskara Eguneko jaialdia Bilboko Guggenheim zabaldegian /
Euskaraokea / Hormairudiak / Berria egunkaria erabilia, albiste zoroa sortu / Koaderno ibiltaria /
"Kikekeriak", Kikeren txisteak ikasi eta kontatu / Girotzeko euskal musika

...eta ekintza gehiago oraindik zehazteke!

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:



Bilbao
Euskararen
Babeslea

ERABILI EUSKARA BILBON



WWW.DARABILBO.EUS // // // // AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOHAINIK

